

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Oiartzo batxilergoko ikasleak gara, Uxue Mendigutxia, Sergio Lacasa, Gorka Delpuerto , Oihan Trecet eta Naia Odriozola. Gure lanaren helburua enpresa bat sortzea da. Ikasi dugunerekin eta denon laguntzaz taldekide bakoitzak dituen indarguneak batu eta enpresa bat sortzeko ideia daukagu. Enpresa bat egiearen ideia behar baten ondorioz sortu da. CO₂-aren kutsadura dela eta, naturaren aldeko ekintza bat egin nahi genuen. Urtez urte handiago egiten ari den arazo bat iruditzen zaigu eta itzulezina izan baino lehen zerbait egin nahaiko genuke.

Proiektu hau aurrera eramateko, CANVAS ereduaren oinarritu gara. Horrela, gure enpresa ideia definitu dugu. CANVAS ereduaren laguntzaz genuen ideia landu eta enpresa eraikitzeke pausoak eman ditugu. Gure ideia eguzki-plaken bidez kargatuko den auto elektriko bat egitea da. Energia berriztagarria erabiltzearen aldeko jarrera daukagu eta pentsatzen dugu etorkizunean indarrean jarriko den baliabide bat dela. Horregatik, aukera hori bultzatu nahi dugu. Gure autoak biztanleentzat eskuragarri jarri nahi ditugu eta etorkizun batean zabaltzea gustatuko litzaiguke. Geroz eta gehiago saltzea onuragarria izango litzateke kutsadura nabarmen murriztuko litzakeelako. Horrez gain, talde bezala lan ona egiteko aukera dugula pentsatzen dugu enpresaren etorkizunari begira ideia asko ditugulako.